

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

EUSKAL HERRIA 2



Egile eta data ezezagunak

(Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udal Artxiboan)

Deskribapena.

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi 1936ko hiru jasodura (bat fatxada planoan, bestea atzeraemana eta hirugarrena mantsardatua). Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan balkoi indibidualak dituena. Behe oineko fatxada oso aldatuta dago. Euskal Herria 4ren apaingarri berdinak ditu, eta hortaz, egilea Domingo Eceiza izan daiteke eta 1894an eraikitakoa izan daiteke.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitu dira.

2.- Berriazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.